

## LOIOLA'KO BATZARRA (1979 Jorraitaren 19-20)

*EUSKERAZAINTZA*'k (Euskeraren Erri-Akademia'k) bere batzar nagusia egin dau Loiola'n.

Pazko-astea zan, irakasleak eta ikasleak opor-egunetan dagozan ezker, etorteko era ohea izan dagien. Araurreratu giñan arduraz eta lan-gogoz.

Ba-ziran arterlu-bearreko arazo batzuk, iru arlotan batez be: Erakunde bera, lan egiteko bide bat Uak azertu-bearra eta idazkereari ta Itz-jokoari egindako azter-lan batzuk onartzea.

Erakundearen zuzendaritzak be bear eban sendotzea, orain arte izan dituan arduradunak aldirakoak izan dira-ta.

\* \*

### EGITARAUA

jorraitaren emeretzian eta goizeko amarretan asi genduan batzarra, aldirako zuzendari zan eta lerro oneik izenpetzen dituanaren itzaldiaz.

Gero egun orretan, goizean taldeen azterpena egin genduan eta arratsaldean idazkereari buruz egindako lana aztertzea.

Urrengo egunean, goizean Itz-jokoa edo deklinabidea azertu genduan eta arratsaldean Albo-Erakun-

(leak gertatuta eukan A raudia azertu eta arduradunak aukeratu.

\* \* \*

### IDAZKEREA

Idazleak, gugaz alkartzen diranak be bai, idazkeraz ez datoz batera. Arau batzuk bearrezkoak dira ba, alkartasuna sortzeko.

Arau onein elburua ez da izango idazle guztiak beartzea, bide batzuk urratzea ta argi-bide batzuk emotea baiño.

Bateratze-taldeak, kardaberaz'tarren lan batzuk oiñarri dirala, gertatu dauan bidea agertu eban taldearen izenean Gaztañaga'tar Jesus'ek eta an artutako erabagiak laster liburuzka baten argitaratuko dira.

\* \*

### ITZ-JOKOA

Talde orrek gertatuta eukan itz-jokoari buruz lan bat eta Orbegozo'tar Jose A gustin' ek eta Gaztañaga'k aurkeztu eban au be.

Izan ziran eztabaida batzuk eta illun geratzen ziran arauak euskerazain osoak ebazteko geratu ziran.

Beste liburuzka baten argitaratuko dira oneik be.

\* \*

### TALDEAK

Olako erakundeetan lan-taldeak garrantzi aundia izaten dabe. Lendik eratuta egozan talde oneik baiña bakoitxak lau urterako eginbidea aurkeztu eban batzar negusira, talde txikietan lan eginda gero.

Erakundearen lan-taldeak oneik dira: Euskera - Lantze, Irakasletza, Ikas - liburugintza, Antzerkigilletza, Bertsolaritza, Olerkaritza, Bateratzailetza, Idazletza, Irratilaritza, Itzultzailetza, Argitaldaritza ta Albo-erakunde.

Ordubeteko lana egin ondoren, talde bakoitxak bere lanbidea ekarri eban eta lau urtean zer egiteko ustea eban azaldu eban.

\* \*

### AUTESKUNDEA

Arratsaldean, bigarren egunez, erakundearen aurdia aurkeztu eban Latiegi'tar Bixente'k eta gauza batzuk aldatu ondoren onartua izan zan.

Urrengo, euskerazainen artean arduradunak aukeratu genduzan eta oneik izan ziran izendatuak: Akesolo'tar Lino, Lendakaria; Olazar'tar Martin, Lendakari-ordea; Orbegozo'tar Jose A gustin, idazkaria; Gaztañaga'tar Jesus, Idazkari-ordea. Albo-erakunde guztiaren ardurapean geratzen da oraingoz diru-zaintza.

\* \*

### EUSKERAZAIÑAK

Lan-talde bakoitxean euskerazain bat da arduradun eta kontu-emoille. Euskerazain osoa esan gura dogu.

Euskeraziñak lautarikoak izango dira: osoak, Deduzkoak, Lankideak, albokoak. Guzti oneik izango dabe Lendakaria aukeratzean eskubidea ta azken-itza.

**OLAZAR'tar M'ek**

